

GAIKOTASUN TRANSMITIGARRIEN ZAINZAREN LABURPENA 2019 - 2020

**Zaintza
Epidemiologikoaren
Unitatea**
Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
Osasun Publikoaren eta Adikzioen
Zuzendariorde

BIZKAIKO ZEU-KO PERTSONALA 2019. ETA 2020. URTETAN

Administrariak

Ana Eva del Valle Araluce, Agustín Virumbrales Santibáñez

Erizainak

Xabier Beraza Ortiz, Marta de la Cruz Ortega, Itxaso González Sancristobal,
Sabino San José Rodríguez, M^a Luz Sanz Yabar, Rosaura Santamaría Zuazua

Epidemiologoak

Jose Ramón Aja Pazos, Eva Alonso Fustel, Inmaculada Baonza Gonzalez,
Concha Castells Carrillo, Visitación de Castro Laiz, Esther Hernández Arricibita,
Liher Imaz Goienetxea, Madalen Oribe Amores, Leire Sainz de Aja Gallastegi,
Nerea Muniozguren Agirre

Edukiak

SARRERA	4
GAIXOTASUN TRANSMITIGARRIEN ZAINZA	5
Elikagaien bidez transmititzen diren gaixotasunak	5
Transmisio parenteraleko gaixotasunak.....	9
Arnas-transmisioa duten gaixotasunak	9
Sexu bidez transmititzen diren gaixotasunak.....	11
Bektoreek transmititutako gaixotasunak	13
Transmisio zoonotikoa duten gaixotasunak.....	14
Txertaketaz saihas daitezkeen gaixotasunak	15
Bestelakoak.....	18
COVID-19AREN ZAINZA.....	19
Intzidentzia	19
Larritasuna. Ospitaleratzeak.....	22
Larritasuna. Hilkortasuna	25
64 urtetik gorako populazioa.....	27
18 urtetik beherako populazioa	29
Esposizio-eremua	31
Etxe-eremuz kanpoko agerraldiak.....	33
ERANSKINAK	35
I. ERANSKINA. Populazioak.....	35
II. ERANSKINA. Zaintzapean dauden gaixotasunak (ABG eta IMS).....	37
III. ERANSKINA. Informazio mikrobiologikoko sistema (IMS).....	44
IV.ERANSKINA. Elikagaiengatiko agerraldiak edo pertsonaz-pertsona.....	46

Dokumentu hau Bizkaiko 2019 eta 2020ko gaixotasun transmitigarrien egoeraren laburpen bat da. EAEn zaindu beharreko gaixotasunen bilakaera erakusten da, ohiko informazio-sistemek monitorizatuta: Aitortu Beharreko Gaixotasunak (ABG), Mediku Jagoleen Sarea eta Informazio Mikrobiologikoko Sistema (IMS).

Besterik zehazten denean izan ezik, erabilitako biztanleriaren izendatzaileak EUSTATen 2019ko eta 2020ko biztanleria-datuei dagozkienak dira (I. eranskina). Tasak deskribatzeko eta estandarizatzeko, 21 taldetan banatutako biztanleria-egitura erabiltzen dugu, 85 urtetik gorakoak hiru taldetan zehaztuz: 85-89, 90-94 eta 95 eta gehiago. Europako 2013ko populazio estandarra erabiltzen da.

Erabilitako osasun-eskualdeak bost ESItan banatzen dira: Barrualde-Galdakao (Arabako Lurralde Historikoko udalerrien salbuespenaz: Llodio, Amurrio, Artzeniega, Aiala eta Okondo), Barakaldo-Sestao, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutseta, Uribe eta Bilbo-Basurtu.

Datu orokorrak, ahal denean sexuaren eta ESIaren arabera bereizita, II. eranskinean daude jasota eta Bizkaiko mikrobiologiako laborategiek IMSri aitortutako gaixotasunak, III. eranskinean.

Izatez Bizkaiko Lurralde Historikokoak izan arren, Arabako Osasun Arloan (Ubide eta Otxandio) edota Gipuzkoakoan (Ermua eta Mallabia) sartuta dauden udalerriek aitortutako gaixotasunak Bizkaiko datu orokorretan daude zenbatuta.

2020ko informazioaren kalitatea kalteturik dago, 2020ko martxoan beste gaixotasun bat agertu baitzen, COVID-19a, eta zaindu beharreko gainerako gaixotasun guztiak eklipsatu zituen. Honen deskribapen epidemiologiko zehatza aurkezten dugu, eta espero dugu 2021ean gainerako gaixotasunen zaintzak normaltasuna berreskuratzea.


Hori da, hain zuzen ere, bakarrik gaixotasun transmitigarriei buruzko eta bi urteko memoria bat aurkeztearen arrazoia, eta ez ohiko urteko memoria, zeinean gaixotasun kronikoen zaintzaren emaitzak ere sartzen diren. 2020an, unitate hau pandemiaren kontrolean murgildu zen, ia modu eksklusiboan.

Elikagaien bidez transmititzen diren gaixotasunak

Bizkaiko mikrobiologiako laborategiek 968 *Campylobacter* infekzio (84,70/100 000) deklaratu zituzten 2019an eta 1022 (88,94/100 000) 2020an. **Kampilobakteriosia** batez ere kutsatutako oilasko-haragia manipulatu eta kontsumitzeagatik sortutako gaixotasuna da, eta Bizkaian elikagaien bidez kutsatutako gaixotasunen lehen kausa da.

2020an, kasuen % 31 bost urtetik beherakoen artean gertatu ziren. Kasu gehiago izan ziren gizonetan (557 kasu, % 55) emakumeetan baino. Kasuen bi taldekatze ikertu ziren.

Kampilobakteriosiaren urteko bilakaera, Bizkaia 2010-2020



Iturria: IMS


2019an 78 **kriptosporidiasi** kasu (6,83/100 000) eta 326 **giardiasi** kasu (28,53/100 000) deklaratu ziren. Biek urtaroaren araberako patroia argia dute, udako hilabeteetan maizago agertu zirelarik. 2020an 26 **kriptosporidiasi** kasu (2,26/100 000) eta 180 **giardiasi** kasu (15,67/100 000) deklaratu ziren.

Sukar tifoideko edo **paratifoideko** bost kasu erregistratu genituen 2019an, bi *S. Typhi* eta hiru *S. Paratyphi*, horietako hiru gizonetan. Bi eremu endemikoetatik inportatu ziren. 2020an, sukur tifoideko bi kasu deklaratu ziren gizonetan.

A hepatitisaren kasuen beherakada nabarmena ikusi zen; hamaika kasu (0,96/100 000) aitortu ziren 2019an, eta 5 kasu (0,44/100 000) 2020an. Beheranzko joerak jarraitzen du, 2017an Europako agerraldi handi baten ondorioz kasuen kopuruak gora egin ondoren. Gizon/Emakume (G/E) arrazoia 4koa izan zen, eta batez besteko adina 37 urte (tartea 2-64).

Identifikatutako arrisku-faktoreei dagokienez, 14 kasuetatik zazpi eremu endemikoetarako bidaiekin lotuta zeuden.


A hepatitisaren urteko bilakaera, Bizkaia 2010-2020



E hepatitisaren bost kasu izan ziren 2019an, batez beste berrogeita hamar urtekoak, eta lau 2020an.

Hamar **listeriosi** kasu (0,87/100 000) deklaratu ziren 2019an, horietako bat 2015ean hasi eta hamaika autonomia-erkidegori eragin zien 37 kasuko kluster batekoa; listeria agerraldi horretako elikagai-lagin batean isolatu zen. Batez besteko adina 76 urtekoa izan zen eta bederatzietako lau gizonak ziren. Arrisku-faktoreen artean, bostek gaixotasun onkologikoa zutela nabarmentzekoa da. Listeria odol laginean isolatu zen 6 kasutan, batean LZRn, bat abzesu batean eta beste bat likido pleuralean. 2020an hamar kasu (0,87/100 000) deklaratu ziren.


Listeriosiaren urteko bilakaera, Bizkaia 2010-2020



322 **norobirus** isolamendu izan ziren 2019an (28,23/100 000), horietatik % 55 hamar urtetik beherakoetan. Kasuen erdia baino gehiago (% 55) urria eta azaroa bitartean gertatu ziren. 2020an 138 kasu (12,01/100 000) aitortu ziren.


Mikrobiologia-laborategiek 265 **errotabirus** (23,23/100 000) aitortu zituzten 2019an, eta 44 (3,83/100 000) 2020an. Aitorpenen % 81 urteko hilabete hotzenetan egin ziren.

Errotavirusaren hilabeteko bilakaera, Bizkaia 2010-2020




Salmonelosiari dagokionez, 260 kasu (22,75/100 000) erregistratu ziren 2019an, eta 179 kasu (15,58/100 000) 2020an. Aurreko urteekin alderatuta, beheranzko joera mantendu da. Kasuen % 32 hamar urtetik beherakoetan antzeman ziren. Andui gehienak *S. Thyphimurium* (% 44) eta *S. Enteritidis* (% 25) izan ziren.

Salmonelosiaren urteko bilakaera, Bizkaia 2010-2020



Hemezortzi **disenteria** kasu (1,58/100 000) aitortu ziren 2019an eta hamabost (1,31/100 000) 2020an. Maiztasuna handiagoa izan zen gizonetan (G/E arrazoia = 3) eta batez besteko adina 34 urte izan zen (tartea: 4-66 urte). Kasu gehienak *Shigella Flexnerik* eragin zituen (% 55) eta ondoren *Shigella Sonneik* (% 30). Jakinarazitako arrisku-faktoreei dagokienez, kasuen % 15 eremu endemikoan egotearekin lotuta zeuden, eta % 50ak sexu-harreman arriskutsuak izan zituen.


Disenteriaren urteko bilakaera, Bizkaia 2010-2020



Iturria: ABG

2019an, *Yersinia*ren isolamenduak 27 (2,37/100 000) izan ziren eta 22 (1,91/100 000) 2020an. Guztiak, bi izan ezik, serotipo enterokolitikoak.

Yersinia isolamenduen urteko bilakaera, Bizkaia 2010-2020



Iturria: IMS

Elikagaiengatiko edo pertsonaz-pertsonako transmisiozko toxiinfekzio agerraldiak

2019an, elikadura-toxiinfekzio edo pertsonaz-pertsonako transmisiozko 26 agerraldi ikertu ziren, 585 pertsonari eragin zietenak; 2020an, hamar agerraldik ehun pertsonari eragin zieten (IV. Eranskina).


2019ko hamaika agerraldi adinekoen edo desgaitasuna zuten pertsonen egoitzetan eman ziren, pertsonatik pertsonara transmititu zirelarik. 419 kasu gertatu ziren, eta eraso-tasa % 7 eta % 54 artekoa izan zen. Hamaika agerraldietatik seitan, agente eragilea norobirusa izan zela zehaztu zuten, eta hirutan errotabirusa.

2019ko gainerako agerraldiak ostalaritza-establezimenduetan edo etxe partikularretan eman ziren, bat izan ezik, ikastetxe batean gertatu baitzen. Establezimendu publikoetan gertatutako hamaika agerraldiek 108 kasu eragin zieten eta horietako bostetan eragilea identifikatu zen: hiru Salmonellak eragin zituen, bat Bacillus cereusek eta beste bat norobirusak. Etxe

partikularretan prestatutako elikagaiak eragindako bi agerraldiak 30 laguni eragin zieten, eta norobirusak eragindako laneko agerraldi bakarrak, 25 kasuri.

2020an ehun pertsonari eragin zieten hamar agerraldi ikertu ziren. Hiru etxebizitza partikularretan gertatu ziren, eta horietako batek partikular batek egindako menu bat kontsumitu zuten 21 pertsonari eragin zien. Agente eragilea Salmonella izan zen bi kasutan. Ostalaritza-establezimenduetan gertatutako hiru agerraldien artean, bi Salmonellak eta bat norobirusak eragin zituen.

Salmonella eta beste kausa batzuek eragindako elikagaiengatiko toxiinfekzio agerraldiak, Bizkaia 2010-2020



Iturria: ABG


Transmisio parenteraleko gaixotasunak

Kategoria honetan, B hepatitis akutuaren bi kasu baino ez ziren aitortu 2019an, txertoa jarri gabeko berrogei urtetik gorako pertsonen artean, eta beste bi 2020an. C hepatitis akutuaren bi kasu aitortu ziren 2019an, eta bat ere ez 2020an.

Arnas-transmisioa duten gaixotasunak

Sars-CoV-2 agertu zenez, **gripe**aren zaintza eten egin zen 2020ko 12. astean. 2019/2020ko denboraldia aurreko denboraldia baino intentsitate baxuagokoa izan zen; atalase-epidemikoa beranduago gairatu zen (2019ko 51. astea), eta tasa altuena 2020ko 3. astean eman zen. Denboraldiaren hasieran, AH1N1 pdm09 izan zen birus nagusia, eta tasa altuena pasa ondoren, B motako birusak ordezkatu zuen. Bizkaiko ospitaleetan 333 gripe kasu larri erregistratu ziren, eta horietatik 45 hil ziren. Bi agerraldi detektatu ziren adinekoen egoitzetan.

Gripearen asteko bilakaera, EAEko 2019-2020 denboraldia




Iturria: Sare Jagolea

2020/2021 denboraldian, COVID-19aren bigarren uhin pandemikoan, arnas infekzio akutua (AIA) zaintzeko sistema bat ezarri da, Influenza, SARS-CoV-2 eta ABS batera zaintzeko.

43 **legionelosi** kasu (3,76/100 000) aitortu ziren 2019an eta 41 kasu (3,59/100 000) 2020an, azken urteetan erregistratutako balioen antzekoak.

84 kasu horietatik ia erdiak hirurogei urtetik gorako pertsonak ziren, % 60 gizonak izanik. Arrisku-faktore ohikoena tabako-kontsumoa izan zen (% 43). Sei pertsona hil ziren, hau da, % 7ko hilgarritasuna. 2020an, hotel berarekin lotutako bi kasu izan ziren; batean, lotura emaitza mikrobiologikoen bidez egiaztatu ahal izan zen, eta bestea, aurrekari epidemiologikoengatik lotu zen.

Legionelosiaren urteko bilakaera, Bizkaia 2010-2020




Iturria: ABG

2019an 125 **tuberkulosi** kasu erregistratu ziren, hau da, 100 000 biztanleko 10,94 kasu. G/E sexuen arazoia 1,7 izan zen, eta intzidentziarik handiena izan zuen adin-taldea 74 urtetik gorakoena izan zen.

2019ko datuen arabera, bazilo-tasak, erkidegoan baziloaren zirkulazioaren zeharkako adierazlea denak, azken urteetan behatutako beheranzko joera jarraitzen du, 100 000 biztanleko 2,10eko tasarekin (24 kasu). Arrisku-faktore ohikoena tabakismoa izan zen (% 18). Atzerrian jaiotako pertsonen portzentajea % 29 izan zen. Kontaktuen azterketa egin zen 59 kasutan, eta guztira 442 pertsona aztertu ziren.

2020an 114 **tuberkulosi** kasu deklaratu ziren, 100 000ko 9,92ko tasa (finkatu gabeko datuak). *Tuberkulosi Programaren* 2020rako helburua bete da, hau da, 100 000ko 10eko tasa lortzea.




Sexu bidez transmititzen diren gaixotasunak

Mikrobiologiako laborategiek aitorturiko *Neisseria gonorrhoeae* bakterioaren isolamendukopurua 399 izan zen 2019an, eta 336 2020an. 2013. urteaz geroztik, **infekzio gonokozikoa**k goranzko bilakaera izan du.

Bombero Etxaniz Sexu-Transmisiozko Infekzioen Zentroak (STI) 258 infekzio gonokoziko deklaratu zituen 2019an, eta 236 2020an. G/E sexuen arazoia 5 izan zen, eta batez besteko adina 33 urtekoa (tartea: 16-82). % 63 gizonekin sexua izan zuten gizonak (GSG) izan ziren.

Infekzio gonokozikoaren urteko bilakaera, Bizkaia 2010-2020



Iturria: IMS

Sifiliaren aitortpenek ere gora egin du azken urteetan, 2019an 170 kasu deklaratu baitzaizkio IMSri, eta 198 kasu 2020an.

Bombero Etxanizko STI zentroak 104 sifili kasu deklaratu zituen 2019an eta 97 2020an. G/E sexuen arrazoa 11 izan zen, eta batez besteko adina 37 urtekoa (17-74 tartea). % 77 GSG izan ziren.

Mikrobiologia-laborategiek 592 **Chlamydia trachomatis bidezko infekzio** kasu (51,90/100 000) deklaratu zituzten 2019an, eta 545 (47,43/100 000) 2020an. **Linfogranuloma benereo**ari dagokionez, 17 kasu aitortu zituzten 2019an eta 8 kasu 2020an.


Bombero Etxaniz STI klinikak 356 *Chlamydia* kasu deklaratu zituen 2019an eta 334 2020an. G/E arrazoa sifilian edo gonokozian baino txikiagoa da (G/E = 2) eta batez besteko adina 31 urtekoa da (tartea: 13-70). Sexu-praktika nagusia heterosexuala da (% 68).

Bi urte hauetan, STI kasuen % 20-32ak jatorri atzerritarra izan zuen (Chlamydia handiagoa). Kasuen % 42-62ak alde aurretik STI bat izan zuen (sifilian handiagoa), eta GIBkin koinfekzioaren portzentaia % 14koa izan zen aztertutako ITS guztietan. Kasuen % 53an kontaktuen ikerketa egin ahal izan zen.

IMSri 218 2 motako herpes kasu deklaratu zitzaizkion 2019an, eta 145 kasu 2020an.

2019an Bizkaian diagnostikatutako **HIESa** eta **GIB** kasuen kopuruak behera egin zuen aurreko urtearekin alderatuta, EAEko HIESaren eta Sexu Transmisiozko Infekzioen Planak emandako datuen arabera. Hala, HIESaren hamahiru kasu diagnostikatu ziren, 2018an baino sei gutxiago, eta horietatik hamaika gizonak ziren. Kasu guztietan identifikatutako transmisio-mekanismoa sexu-bidezko izan zen, zortzi heterosexual eta bost homosexual.

86 GIB infekzio berri diagnostikatu ziren Bizkaian (96 2018an), % 86 gizonetan. Batez besteko adina 39 urtekoa izan zen gizonetan eta 37,9koa emakumeetan. Infektatutako pertsonen % 39,5 atzerritarrek ziren. Irudian, emakumeen eta gizonen transmisio-mekanismoak agertzen dira.



Iturria: HIESaren eta Sexu bidezko Infekzioen Plana

Bektoreek transmititutako gaixotasunak


2019an, hamabost **denge** kasu deklaratu ziren Bizkaian, eta zazpi 2020an, guztiak eremu endemiko baterako bidaiarekin lotuta.

Zika-gaixotasun kasu bakarra aitortu zen 2019an, Brasilerako bidaiarekin lotutara zuena, eta 2020an bat ere ez. Ez zen **Chikungunya birusak eragindako gaixotasun** kasurik deklaratu. **Chagasen gaixotasunaren** baheketarekin jarraitu zen, haurdunentzako serologiaren bidez.

2019an, 30 **paludismo** kasu erregistratu ziren (tasa: 2,63/100 000), hamahiru emakume eta hamazazpi gizon. Adin-tartea 10 eta 70 urte bitartekoa izan zen eta batez bestekoa 41. 24 kasutan *Plasmodium falciparum* identifikatu zen, bi kasutan *P. malariae*, bat *P. ovale* eta hiru parasitazio mistoak izan ziren. Infekzioaren jatorria Afrika izan zen 29 kasutan eta kasu bat Honduras eta Nikaragutatik itzulitako bidaiari bat izan zen. Gehienak gune endemikoetako pertsonak izan ziren, aldi baterako beren jaioterrira bidaiatu zutenak; bat etorkin etorri berria zen, eta bi aldi baterako langileak. Kasu batek soilik zuen kimiofilaxi osoa burutua.

2020an 8 kasu aitortu ziren, 0,70/100 000ko tasa, bost emakume eta hiru gizon, 23 eta 50 urte bitartekoak. Guztiak *Plasmodium falciparum* izan ziren, Afrikatik etorritakoak (Ekuatore Gineatik 5). Bost izan ziren senideak bisitatu zituzten pertsonak, bat etorkina zen, bat turista eta beste bat aldi baterako langilea.

Bertako biztanleri eta atzerritarren Paludismoaren urteko bilakaera, Bizkaia 2010-2020




Transmisio zoonotikoa duten gaixotasunak

Q Sukarraren 41 kasu erregistratu dira 2019an (tasa: 3,59 100 000 biztanleko). Familia-agerraldi bat gertatu zen, hiru kasurekin, eta beste hamar kasu Errioxako nekazaritza-turismo bateko egonaldiarekin lotu ziren. Sexuen arazoia (G/E) 1,9 izan zen, eta gehiago erasan zien 25 eta 44 urte bitarteko pertsonei.

2020an sei kasu erregistratu ziren (0,52/100 000). Grafikoan ikus daitekeenez, **Q sukarrak** urtaroren araberako patroia izaten jarraitzen du.

Q sukarraren hilabeteko banaketa, Bizkaia 2010-2020



2019an, bost **leptospirosi** kasu aitortu eta aztertu ziren, horietako bik EAE kanpoko ibaietan bainatzearen aurrekariak zituztelarik; **leishmaniasi** bat, atzerrian egondako pertsona baten kasua; **bruzelosi** kasu bat, EAetik kanpo egondako heldu bat; eta bi **tularemia** kasu, Gaztela eta Leonen izandako agerraldi batekin lotuta. *Borrelia burgdorferi* rentzat positibo izan ziren 17 serologia deklaratu ziren IMSn, eta, ikertu ondoren, **Lymeren gaixotasun** kasu bat baieztatu zen.

2020an hamaika **leptospirosi**, **bruzelosi** bat eta **tularemia** kasu bat aitortu ziren.


2019an, Marokon katu batek koska egindako gizon bat hil zen **amorrua**ren gaixotasunak jota, 1956tik aitortutako lehen kasua izanik. 55 pertsonari aplikatu zitzairen esposizio osteko profilaxia: 44 osasun-langileri eta 11 senitartekori. Bestalde, 2019an, 113 aldiz aplikatu zen **amorrua**ren aurkako profilaxia, horietatik 24 animaliekiko esposizioaren ondoren.

Txertaketaz saihas daitezkeen gaixotasunak

2019an **Haemophilus Influenzae** eragindako gaixotasun inbaditzailea ren hogeit hamar kasu erregistratu ziren. Aztertutako 18 anduietatik hamalau kapsulatu gabeak ziren, bata a, bestea b, beste bat ez b eta azkena tipatu ezina. 2020an lau kasu erregistratu ziren, andui bat kapsulatu gabea zen, bat f serotipoa eta besteak ez ziren azertu.

Gaixotasun meningokozikoaren hamahiru kasu aitortu ziren 2019an, 100 000 biztanleko 1,14ko tasa, eta horietatik zazpi B serotaldekoak izan ziren, erdia bi urtetik beherakoak. Ez zen heriotzarik izan. Bi aldiz esku hartu zen eskola-ingurunean. 2020an bederatzi kasu erregistratu ziren, Y serotalde bat, W135 bat, C bat eta gainerakoak serotalderik gabekoak.


Gaixotasun meningokozikoaren urteko bilakaera, Bizkaia 2010-2020



Iturria: ABG

Streptococcus pneumoniae birusak eragindako gaixotasun inbaditzaileak 12,16 kasuko tasa izan zuen 100 000 biztanleko (139 kasu) 2019an. Pazienteen batez besteko adina 62 urtekoa izan zen, bi hilabete eta 98 urte artekoa. Hamahiru kasu erregistratu ziren bost urtetik beherakoan artean, eta horietatik hamaika behar bezala txertatuta zeuden beren adinerako. Serotipoa azertu zen hamahiru kasuetatik zortzitan. Bi urtetik beherako bi haurretan txertoan sarturik dagoen 3 serotipoa identifikatu zen; batek hamaika hilabete zituen, bi txerto dosirekin, eta besteak 21 hilabete, 13V-ko txerto konjugatuaren hiru dosirekin. Biek pneumonia larria garatu zuten arnas gutxiegitasunarekin.

Gaixotasun neumokoziko inbaditzailearen urteko bilakaera 5 urte baino gutxiagoko haurretan, Bizkaia 2010-2020




Iturria: IMS etay ABG

Helduetan emandakago kasuen % 31k pneumokokoaren aurkako txertoa jarrita zuen. Txertorik hartu ez zutenen artean, % 46ak txertoa jartzea gomendatuta zuen, 64 urtetik gorako adina edo arrisku-faktoreren bat izateagatik.

2020an **gaixotasun pneumokoziko inbaditzailearen** 61 kasu deklaratu ziren, 100 000ko 5,34eko tasa. Hamar bost urtetik beherakoak ziren (30,01/100 000) eta zortzi behar bezala txertatuta zeuden. Horietako batean serotipoa identifikatu zen, 19Fa, txertoan sarturik dagoena.

Europa osoan ikusitako joerari jarraituz, 2019an **elgorriaren** jarduera-urtea izan zen, hiru kasu baieztatu baitziren, bai eta beste bi ere, 2018ko agerraldi baten parte zirenak. Guztiak helduak ziren: bere lantokian kutsatu zen osasun-langile bat, bere jatorrizko herrialdera (Errumania) egindako bidaia batean kutsatu zen gizon bat eta Asiako hego-ekialdetik egindako bidaia batean kutsatu zen beste bat. Halaber, Bizkaian oportretan zegoen neskato frantziar baten kasu bat eta elgorriaren beste hiru kasu susmagarri ikertu eta baztertu ziren. 2020an ez zen kasurik aitortu, ez eta elgorri susmorik ikertu ere.


Elgorriaren urteko bilakaera adin pediatrikoan* eta helduetan, Bizkaia 2001-2020



* 14 urte arte
Iturria: ABG

Behera egin du parotiditisaren intzidentziak. 2019an, 17,33 kasu 100 000 biztanleko (198 kasu) tasa eta 1,61eko epidemia-indizea aurreko bost urteetako medianarekin alderatuta, eta 3,24 kasu 100 000 biztanleko (37 kasu) 2020an.

Parotiditisaren bilakaera lau-asteka, Bizkaia 2007-2020




Iturria: ABG

Paralisi flazido akutuaren (PFA) kasuen zaintzak aurrera darrai, ***Poliomielitisa Desagerrarazteko Programaren*** barruan. 2019an hiru PFA kasu identifikatu ziren; behin betiko diagnostikoa Guillain Barré-ren sindromea izan zen hiru aldietan. 2020an PFA kasu bat ikertu zen, eta diagnostikoa Guillen Barré posiblearena izan zen.

Kukutxeztularen intzidentzia-tasa 14,53 kasukoa izan zen 100 000 biztanleko (166 kasu) 2019an, eta 2,19koa 2020an (25 kasu).

Kukutxeztularen urteko bilakaera, Bizkaia 2010-2020




Iturria: ABG

Barizelaren intzidentzia 2019an 100 000 biztanleko 38,8ra igo zen (443 kasu). 2020an ez da kasurik deklaratu.

Bestelakoak

A taldeko estreptokokoagatiko gaixotasun inbaditzailearen 24 kasu deklaratu ziren 2019an (2,10/100 000), horietatik lau adin pediatrikoan. Gaixotasun kardiakoaren aurrekariak zituen laurogei urteko gizon bat hil zen sepsiak jota. 2020an hamabi kasu aitortu ziren, 100 000 biztanleko 1,05ko tasa.




EAEn, 2019an, **gizakietan emandako entzefalopatia espongiforme transmitigarrien** bi kasu ikertu ziren, eta beste bi 2020an.

Hazteria nahitaez aitortu beharreko gaixotasuna ez den arren, 2019an birulentzia berezia izan zuen. Agerraldi ugari detektatu ziren adinekoen edo desgaitasuna zuten pertsonen egoitzetan, bai eta etxerik gabeko pertsonen aterpetxeetan ere.

Intzidentzia

COVID-19ren lehen diagnostikotik, martxoaren 2tik, 2020ko abenduaren 31ra arte, Bizkaiko Zaintza Epidemiologikoko Unitatean, PCR eta/edo antígeno bidez baieztaturako 55293 kasu erregistratu dira. Lehen uhin pandemikoan, intzidentzia handieneko tontorra martxoaren 25ekoa da (359 kasu). Maiatzaren 11tik uztailaren 12ra bitartean intzidentzia egonkor mantendu da, 9 kasu eguneko bataz bestekoarekin (tartea: 1-30). Data horretatik aurrera, bigarren uhin bimodal bat ikusten da, lehen intzidentzia-tontorra abuztuaren 28an (517 kasu) eta bigarrena urriaren 30ean (701 kasu) dituena. Abenduaren amaieran, intzidentziak berriz ere goranzko joera izan zuen. 2020an erregistraturako kasu guztietatik % 14 maiatzaren 11 arte luzatu zen lehen uhin pandemikoan diagnostikatu ziren.

PCR/Ag bidez baieztaturiko kasu kopurua diagnostiko-dataren arabera, Bizkaia (martxoaren 1etik abenduaren 31ra)



Pandemia hasi zenetik abenduaren 31ra arte, Bizkaiko biztanleriaren intzidentzia metatua % 4,8 izan zen (% 4,7 gizonak; % 5 emakumeak). Pazienteak bizi diren ESI bakoitzeko, Ezkerraldea-Enkarterri eta Barrualde- Galdakaoko % 4,3 eta Bilbo-Basurtuko % 5,6aren artean kokatu da.

Espainiako SARS-CoV-2 bidezko infekzioaren Sero-Epidemiologiaren Azterlan Nazionalaren arabera (azken inkesta azaroaren 16tik 29ra egin zen), IgG antigorputzen prebalentzia orokorra % 7,0koa zen Bizkaian (% 6,9 emakumeetan; % 7,2 gizonetan). https://portalcne.isciii.es/enecovid19/informes/informe_final.pdf

2020ko COVID-19 kasu baieztatuak, sexuaren eta ESlaren arabera, Bizkaia. 2020


	Gizonak		Emakumeak		Guztira	
	kasuak	tasa	kasuak	tasa	kasuak	tasa
Barakaldo-Sestao	2901	4819,4	3455	5278,9	6356	5058,8
Barrualde-Galdakao	5588	4139,9	6102	4393,6	11690	4268,6
Bilbo-Basurtu	8961	5507,3	10419	5675,7	19380	5596,6
Ezkerr.-Enk.-Gurutz.	3236	4112,0	3697	4414,6	6933	4268,0
Uribe	4531	4364,8	5041	4497,3	9572	4433,6
Bizkaia	25900	4711,5	29388	4954,7	55293	4838,2

Barrualde ESiko datuek ez dituzte barne hartzen Bizkaikoak ez diren udalerrriak.


Pandemiaren bilakaera antzekoa izan da Bizkaiko ESI guztietan.

Intzidentzia-tasa (100 000 biztanleko) pazientearen diagnostiko astean, sexuaren eta ESlaren arabera, Bizkaia (martxoaren 1etik abenduaren 31ra)


Bizkaia




Barakaldo-Sestao ESI




Barrualde-Galdakao ESI




Bilbo-Basurtu ESI



Ezkerr. Enkart. Gurutz. ESI



Uribe ESI




— Gizona — Emakumea


Kasuen batez besteko adina 45 urtekoa da, 62 urtekoa lehen uhinean eta 43 urtekoa maiatzaren 11tik aurrera. 2020. urtearen amaieran, PCR/Antigeno bidez baieztatutako diagnostikoa du, 0-14 urteko biztanleen % 3,8ak, 15-29 urteko gazteen % 6,6ak, 30-59 urteko helduen % 4,9ak eta 59 urtetik gorakoen % 4,4ak.

COVID-19 kasu baieztatuen ehunekoa adinaren eta sexuaren arabera, Bizkaia, 2020

Martxoaren 1etik maiatzaren 10era



Maiatzaren 11tik abenduaren 31ra




Maiatzaren 11ra arte, intzidentzia-tasak gora egiten du adinarekin: 100.000 biztanleko 1000 baino gehiago dira 70 urtetik gorako gizonak eta 80 urtetik gorako emakumeak. Maiatzaren 11tik aurrera, tasarik altuenak 10 eta 29 urte bitarteko gazteei dagozkie. Intzidentzia-tasa askoz ere handiagoa da gizonen artean lehen aldiak, eta berdina da sexuen artean maiatzaren 11tik aurrera.

Kasu kopurua eta intzidentzia-tasa metatua, adin taldearen eta sexuaren arabera, bi diagnostiko-alditan, martxoa 1-maiatza 10/maiatza 11-abendua 31, Bizkaia

	GIZONAK						EMAKUMEAK						GUZTIRA	
	<mai.11		mai-abe		2020		<mai.11		mai-abe		2020			
	Kasuak	Tasa	Kasuak	Tasa	Kasuak	Tasa	Kasuak	Tasa	N	Tasa	Kasuak	Tasa	Kasuak	tasa
0-9	6	12,2	1659	3361,4	1665	3373,6	8	16,9	1663	3509,6	1671	3526,5	3336	3448,5
10-19	19	35,5	2771	5173,4	2790	5208,9	21	41,9	2574	5131,6	2595	5173,4	5385	5191,8
20-29	124	246,8	3187	6343,8	3311	6590,6	277	565,2	3262	6656,5	3539	7221,7	6850	6902,3
30-39	213	305,0	2959	4236,4	3172	4541,4	465	670,7	3461	4991,7	3926	5662,4	7098	5099,8
40-49	405	430,9	3944	4196,6	4349	4627,5	662	710,0	4211	4516,1	4873	5226,1	9222	4925,6
50-59	564	646,9	3530	4048,7	4094	4695,5	803	876,4	3760	4103,8	4563	4980,2	8657	4841,4
60-69	568	827,5	2333	3398,7	2901	4226,2	510	665,8	2269	2962,1	2779	3627,9	5680	3910,6
70-79	544	1161,7	1310	2797,4	1854	3959,1	428	721,5	1426	2404,0	1854	3125,5	3708	3493,2
80-89	479	1850,3	871	3364,5	1350	5214,8	767	1734,4	1511	3416,8	2278	5151,2	3628	5174,7
90+	161	3843,4	256	6111,2	417	9954,6	582	4755,7	730	5965,0	1312	10720,7	1729	10525,4
Guzt.	3083	560,8	22820	4151,2	25903	4712,0	4523	762,6	24867	4192,5	29390	4955,1	55293	4838,2

Maila sozioekonomikoa: 2020an diagnostikatutako pazienteen % 94,2ren gabezia-indizea dugu. Gabezia-indizearen eta COVID-19aren intzidentziaren arteko erlazioa esanguratsua da, eta, lehenengo uhin pandemikoan dauden gizonen kasuan izan ezik, adinaren arabera estandarizatutako intzidentzia-tasa (ATE) nabarmen handiagoa da III., IV. eta V. mailetan (pobreagoak) I. eta II. mailetan baino (aberatsagoak). Harremana nabarmenagoa da emakumeen artean aztertutako bigarren aldiak, eta esanguratsua da gizonen artean.

COVID-19 gaixotasunaren adinaren arabera estandarizatutako intzidentzia-tasa (ATE), gabezia-indizearen, sexuaren eta ESlaren arabera, Bizkaia, Dx martxoa 1-maiatza 10 eta maiatza 11-abendua 31 artean



COVID 19. Kasu kopurua, Tasak eta Intzidentzia-estandarizatuaren arrazoa, gabezia-indize, sexu eta diagnostiko-aldiaren arabera, Bizkaia. 2020


	Gabezia-indizea	Gizonak					Emakumeak				
		Kasuak	TG	ATE	IEA	KT % 95	Kasuak	TG	ATE	IEA	KT % 95
Martxoaren 1a- Maiatzak 10	I (aberatsena)	568	474,56	454,80	1,00		648	484,10	449,66	1,00	
	II	392	407,14	404,71	0,89	0,86 0,92	520	501,84	469,84	1,04	1,02 1,07
	III	434	428,68	413,18	0,91	0,88 0,93	616	568,37	537,37	1,20	1,17 1,23
	IV	484	454,11	419,17	0,92	0,90 0,95	585	511,63	471,79	1,05	1,02 1,08
	V (txiroena)	510	409,27	398,07	0,88	0,85 0,90	750	573,29	539,16	1,20	1,17 1,23
	GI gabe		124 (% 4,9)					136 (% 4,2)			
Maiatzaren 11a- Abenduak 31	I (aberatsena)	4288	3582,56	3635,96	1,00		4596	3433,54	3588,96	1,00	
	II	3413	3544,80	3632,63	1,00	0,99 1,00	3577	3452,10	3607,64	1,01	1,00 1,01
	III	3875	3827,46	3964,28	1,09	1,08 1,10	4117	3798,67	4003,18	1,12	1,11 1,12
	IV	4093	3840,24	3972,41	1,09	1,09 1,10	4426	3870,91	4158,16	1,16	1,15 1,17
	V (txiroena)	5153	4135,27	4254,19	1,17	1,16 1,18	5541	4235,46	4523,18	1,26	1,25 1,27
	GI gabe		1312 (% 5,9)					1411 (% 6)			
Martxoa 1- Abenduak 31	I (aberatsena) rico	4856	4057,11	4090,76	1,00		5244	3917,64	4038,63	1,00	
	II	3805	3951,93	4037,34	0,99	0,98 0,99	4097	3953,95	4077,48	1,01	1,00 1,02
	III	4309	4256,14	4377,46	1,07	1,06 1,08	4733	4367,04	4540,55	1,12	1,12 1,13
	IV	4577	4294,35	4391,58	1,07	1,07 1,08	5011	4382,54	4629,95	1,15	1,14 1,15
	V (txiroena)	5663	4544,54	4652,26	1,14	1,13 1,14	6291	4808,75	5062,34	1,25	1,25 1,26
	GI gabe		1436 (% 5,8)					1547 (% 5,7)			

Larritasuna. Ospitaleratzeak

COVID-19 sintomak dituzten pazienteen ospitaleratzeak aztertu dira. 2020an IADP bidez baieztatutako kasuen % 12 (6616) plantan sartu ziren. Portzentai hori % 42koa izan zen lehen uhin pandemikoan eta % 7koa maiatzaren 11tik aurrera.

Ospitaleratutako paziente guztietatik 557 ZIUn sartu behar izan zituzten, % 7,6 (247/3232) lehen uhinean eta % 9,2 (310/3384) maiatzaren 11tik aurrera.

Ospitaleratze eta ZIUn sartze kopurua, ospitaleratze-dataren arabera, Bizkaia (martxoaren 1etik abenduaren 31ra)




Plantan sartutakoen % 55 eta ZIUn sartutakoen % 71 gizonak dira. Ospitaleratzeko unean, batez besteko adina 68 urtekoa zen, eta ZIUn zertxobait txikiagoa (63 urte). Plantan ospitaleratutako gizonen % 33 eta emakumeen % 30 60 urtetik beherakoak dira. Bigarren aldiari ospitaleratutako kopurua (100 000 biztanleko tasa) lehenengoan aurkeztutakoa baino handiagoa izan da adin-talde guztietan.


Plantan eta ZIUn sartutakoaren ehunekoak, adin-taldearen eta sexuaren arabera, 2020, Bizkaia

Plantan sartutakoaren %

Gizonak




Emakumeak




ZIUn sartutakoaren %

Gizonak



Emakumeak



Legend for age groups: <40 (dark blue), 40-49 (light blue), 50-59 (checkered), 60-69 (vertical lines), 70-79 (horizontal lines), 80-90 (diagonal lines), <=90 (cross-hatched).

Plantan sartutako kopurua, adin-taldearen eta diagnostiko-aldiaren arabera, Bizkaia (martxoaren 1etik abenduaren 31ra)

	GIZONAK						EMAKUMEAK						BIZTANLERIA	
	<mai.11		mai-abe		2020		<mai. 11		mai-abec		2020		Guztira	
	Kop.	Tasa	Kop.	Tasa	Kop.	Tasa	Kop.	Tasa	Kop.	Tasa	Kop.	Tasa	Kop.	Tasa
0-9	1	2,0	7	14,2	8	16,2	1	2,1	1	2,1	2	4,2	10	10,3
10-19	3	5,6	2	3,7	5	9,3	4	8,0	3	6,0	7	14,0	12	11,6
20-29	21	41,8	25	49,8	46	91,6	13	26,5	25	51,0	38	77,5	84	84,6
30-39	47	67,3	83	118,8	130	186,1	64	92,3	72	103,8	136	196,1	266	191,1
40-49	188	200,0	199	211,7	387	411,8	134	143,7	137	146,9	271	290,6	658	351,4
50-59	289	331,5	347	398,0	636	729,4	219	239,0	222	242,3	441	481,3	1077	602,3
60-69	397	578,3	403	587,1	800	1165,4	232	302,9	240	313,3	472	616,2	1272	875,8
70-79	431	920,4	345	736,7	776	1657,1	263	443,4	214	360,8	477	804,1	1253	1180,4
80-89	313	1209,1	365	1409,9	678	2619,0	334	755,3	396	895,5	730	1650,7	1408	2008,2
90+	88	2100,7	103	2458,8	191	4559,6	190	1552,5	195	1593,4	385	3145,9	576	3506,4
Guztira	1778	323,4	1879	341,8	3657	665,2	1454	245,1	1505	253,7	2959	498,9	6616	578,9

ZIUn sartutako kopurua, adin-taldearen eta diagnostiko-aldiaren arabera, Bizkaia (martxoaren 1etik abenduaren 31ra)

	GIZONAK						EMAKUMEAK						BIZTANLERIA	
	<mai.11		mai-abe		2020		<mai. 11		mai-abe		2020		Guztira	
	Kop.	Tasa	Kop.	Tasa	Kop.	Tasa	Kop.	Tasa	Kop.	Tasa	Kop.	Tasa	Kop.	Tasa
0-9	-	0,0	1	2,0	1	2,0	-	-	-	-	0	0,0	1	1,0
10-19	-	-	-	0,0	0	0,0	-	-	1	2,0	1	2,0	1	1,0
20-29	1	2,0	3	6,0	4	8,0	-	-	-	-	0	0,0	4	4,0
30-39	3	4,3	9	12,9	12	17,2	4	5,8	5	7,2	9	13,0	21	15,1
40-49	14	14,9	19	20,2	33	35,1	8	8,6	15	16,1	23	24,7	56	29,9
50-59	31	35,6	43	49,3	74	84,9	11	12,0	14	15,3	25	27,3	99	55,4
60-69	65	94,7	73	106,3	138	201,0	21	27,4	30	39,2	51	66,6	189	130,1
70-79	61	130,3	59	126,0	120	256,3	22	37,1	22	37,1	44	74,2	164	154,5
80-89	5	19,3	9	34,8	14	54,1	1	2,3	6	13,6	7	15,8	21	30,0
90+	-	-	-	-	0	0,0	-	-	1	8,2	1	8,2	1	6,1
Guztira	180	32,7	216	39,3	396	72,0	67	11,3	94	15,8	161	27,1	557	48,7

Batez besteko egonaldia kalkulatzeko, 100 egunetik gorako egonaldia duten 20 kasu baztertu ditugu, horietatik 18 lehenengo uhin pandemikoan diagnostikatutakoak. Ospitaleratu eta astebetara diagnostikatzen badute pazienteak, diagnostikoaren datatik aurrera kalkulatu da egonaldia. Batez besteko egonaldiak, bai plantan, bai ZIUn, behera egin du.


Planta eta ZIuko batez besteko egonaldia, Bizkaia (martxoaren 1etik abenduaren 31ra)

	GIZONAK						EMAKUMEAK						BIZTANLERIA	
	<mai.11		mai-abe		2020		<mai. 11		mai-abe		2020		Guztira	
	Planta	ZIU	Planta	ZIU	Planta	ZIU	Planta	ZIU	Planta	ZIU	Planta	ZIU	Planta	ZIU
0-9	1,0	-	4,4	-	4,0	-	2,0	-	4,0	-	3,0	-	3,8	0,0
10-19	5,0	-	3,5	-	4,4	-	8,3	-	2,7	-	5,9	1,0	5,3	1,0
20-29	5,0	1,0	6,0	7,3	5,5	5,8	9,7	-	4,5	-	6,3	-	5,9	5,8
30-39	7,2	7,0	6,9	9,8	7,0	9,1	7,5	16,3	6,4	8,3	6,9	12,3	7,0	10,4
40-49	9,1	11,2	7,0	9,3	8,3	12,4	7,9	17,8	7,5	11,5	7,7	13,7	7,9	11,6
50-59	10,1	15,2	8,7	12,6	9,5	15,1	7,6	19,2	6,9	10,2	7,3	14,3	8,5	13,8
60-69	13,9	19,6	11,5	16,0	14,1	21,5	9,8	15,9	9,1	11,7	9,5	13,5	11,5	16,5
70-79	13,7	18,9	11,9	14,9	13,9	19,2	11,6	15,4	11,2	11,9	11,4	13,7	12,3	16,1
80-89	11,6	8,6	12,1	12,0	11,8	10,7	12,4	3,0	11,4	5,5	11,9	5,1	11,8	8,8
90+	11,3	-	12,6	-	12,0	-	9,8	16,4	13,2	-	11,5	6,0	11,7	6,0
Guztira	11,9	17,3	10,4	13,7	11,7	17,8	10,1	16,3	9,8	10,7	10,0	13,1	10,6	14,7

Plantako batez besteko egonaldia 12 egunekoa da gizonen kasuan eta 10ekoa emakumeen kasuan. ZIU batez besteko egonaldia handiagoa da: 18 egun gizonetan eta 13 emakumeetan. Bi sexuetan, egonaldiak behera egin du maiatzaren 11tik aurrera, batez ere ZIU.

Larritasuna. Hilkortasuna

Martxoaren 1etik abenduaren 31ra, 1840 pertsona hil dira Bizkaian, heriotza baino lehen IAPD positiboa zutenak. Historia klinikoak berrikusi ondoren, 348 kasutan SARS-CoV-2k eragindako infekzioa baino heriotza-kausa onargarriagoa identifikatu da, eta, beraz, 2020an diagnostikatutako pertsonen artean, 1492 pertsona (% 2,7) hil ziren COVID-19aren ondorioz. Lehenengo uhin pandemikoan hilgarritasun-tasa % 10,5ekoa izan zen, eta bigarreanean % 1,5ekoa.



Diagnostiko-dataren eta heriotza-dataren artean 10 egun igarotzen dira batez beste (mediana: 10 egun). Hildakoen erdiak (% 51,3) gizonetzkoak dira. Batez besteko adina 81 urte da gizonen artean eta 86 emakumeen artean. 40 pertsona hil dira 60 urtetik beherakoen artean.


100 000 biztanleko heriotza-tasak behera egin du aztertutako bigarren aldiaren biztanleria osoan eta adin-talde guztietan, 30-59 urteko taldean izan ezik, non 1,2 puntu igo den.

COVID-19agatik hildakoen kopurua eta tasa (100 000 biztanleko), adin-taldearen, sexuaren eta diagnostiko-aldiaren arabera, Bizkaia, 2020


	GIZONAK						EMAKUMEAK						BIZTANLERIA	
	<mai.11		mai-abe		2020		<mai.11		mai-abe		2020		Guztira	
	Kop	Tasa	Kop	Tasa	Kop	Tasa	Kop	Tasa	Kop	Tasa	Kop	Tasa	Kop	Tasa
0-9	-	-	1	2,0	1	2,0	-	-	0	0,0	-	-	1	1,0
10-19	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
20-29	1	2,0	-	-	1	2,0	-	-	-	-	-	-	1	1,0
30-39	2	2,9	1	1,4	3	4,3	2	2,9	1	1,4	3	4,3	6	4,3
40-49	1	1,1	1	1,1	2	2,1	-	-	3	3,2	3	3,2	5	2,7
50-59	5	5,7	11	12,6	16	18,4	6	6,5	5	5,5	11	12,0	27	15,1
60-69	39	56,8	31	45,2	70	102,0	13	17,0	14	18,3	27	35,2	97	66,8
70-79	106	226,4	74	158,0	180	384,4	45	75,9	29	48,9	74	124,7	254	239,3
80-89	172	664,4	183	706,9	355	1371,3	164	370,8	138	312,1	302	682,9	657	937,1
90+	70	1671,0	68	1623,3	138	3294,3	169	1380,9	137	1119,5	306	2500,4	444	2702,9
Guztira	396	72,0	370	67,3	766	139,3	399	67,3	327	55,1	726	122,4	1492	130,6

Kasuak, plantan sartuak, ZIUn sartuak eta hildakoak, adin-taldearen, sexuaren eta diagnostiko-aldiaren arabera, Bizkaia, 2020

Martxoa 1 – maiatza 10 aldia



Maiatza 11 – abendua 31 aldia




64 urtetik gorako populazioa


2020an, COVID-19aren 5 diagnostikotik bat 64 urtetik gorako pertsona bati dagokio. Adin-talde horretan, baieztatutako kasuen % 29 (3219/11248) zentro soziosanitario batean bizi zen; ehuneko-a handiagoa da emakumeen artean (% 35) gizonen artean baino (% 20).

64 urtetik gorako kasuen kopurua, diagnostiko-dataren arabera, Bizkaia (martxoak 1-abenduak 31)

Gizonak



Emakumeak




Nahiz eta COVID-19a duten pertsonen % 20k soilik dituen 64 urte baino gehiago, adin-talde horretan heriotzen % 94,5 (1410) gertatu dira; 712 gizonak ziren eta 698 emakumeak.

64 urtetik gorako 1410 hildakoetatik, 714 komunitate soziosanitario batean bizi ziren eta 696 etxean; hau da, hilgarritasuna % 22koa da instituzionalizatutako pertsonen artean, eta % 9koa komunitatean bizi direnen artean. Hurrengo grafikoetan, biztanleria-piramideak desberdintasun horietan duen eragina ikusten da; izan ere, 64 urtetik gorakoen batez besteko adina 76 urtekoa da komunitatean, eta 86 urtekoa egoitzetan.


64 urtetik gorako hildako eta osatutako eta hilgarritasuna, adin-taldearen eta sexuaren arabera instituzionalizatu eta ez instituzionalizatuetan, Bizkaia (martxoak 1-abenduak 31)

Gizonak

Ez instituzionalizatuak




Instituzionalizatuak




Emakumeak

Ez instituzionalizatuak



Instituzionalizatuak



Osatutakoak Hildakoak Hilgarritasuna

Aurkeztutako zifrek ez dute benetako hilgarritasuna islatzen; izan ere, maiatzaren 11ra arte proba diagnostiko gutxi egiten ziren eta, bestalde, intzidentzia erreala handiagoa da sintomarik gabeko kasuak eta arinak falta direlako.

Bizkaiko adineko pertsonentzako 153 egoitza aztertu dira, etxebizitza komunitarioak edo kongregazio erlijiosoak kontuan hartu gabe. Gure erregistroen arabera, 2020. urtean gutxienez baieztatutako COVID-19 kasu bat detektatu zen 153 egoitzetatik 111tan (% 73), eta kasu bakar bat ere ez zen erregistratu 42 egoitzatan (% 27). Kasurik gabeko egoitzen proportzioa handiagoa da egoitzaren tamaina zenbat eta txikiagoa izan.

Egoitzen kopuru eta maiztasun erlatiboa (%) tamainaren eta COVID-19 kasu konfirmatu kopuruaren arabera, Bizkaia, martxoa 1- abendua 31

Tamaina* (Plaza kop.)	Egoitza kop.	Kasurik gabe		1-2 kasu		≥3 kasu	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<50	74	32	43,2	16	21,6	26	35,1
50-99	44	8	18,2	6	13,6	30	68,2
100-149	21	2	9,5	0	0,0	19	90,5
>149	14	0	0,0	0	0,0	14	100,0
GUZTIRA	153	42	27,5	22	14,4	89	58,2

* Zahar-egoitza bakoitzaren plaza kopuruaren arabera

